

Julen Zabala

EHUKO SOZIOLOGIA IRAKASLEA

EA ere susmagarri

Espainiar nazionalismoarentzat EA ere susmagarria dela esan nahi dut. Politikan joera berriak agertu eta zaharrak itzaliz joaten dira, eta Hego Euskal Herriko politikan nabaria da –eta badira urte batzuk!– espainiar nazionalismoaren berrantolatzea. Horrek, halaber, euskal nazionalismoaren hausnarketa fasea ekarri behar zuen. Eta, izan ere, hausnarketa hori gertatzen ari da, besteak beste, badaudelako gizarte eta politika arloko adierazle batzuk indar abertzaleen muga edo oztopoak adierazten dituztenak. Datu horien azalpena, ordea, ez dago hain argi, eta horrek desitxuratu egingen du eztabaida.

Azalpen horretarako gakoetako bat espainiar nazionalismoaren goranzko joera da, nire iritziz. Urte batzuetan erdi desaktibaturik egon ondoren, indartsu ageri da berriro, eta horrek *frentismora*, eta jarrera politikoaren sinplifikazio behartura darama. Oraintsu gertaturiko mugimendu batek ezin argiago islatu du hau dena. Izan ere, udatik hona EA alderdiak diskurtso erabatekoagoa ireki du nazio gaian, independentzia mezua argiago formulatuta, eta EAJtik erabatez desmarkaturik, independentzia helburu horretan nahikorik ez egitea, eta baita oztopo izatea ere leporatuta.



INIGO AZKONA

Diskurtsoaren sinesgarritasunaz eztabaidatu dute batzuek, baina niri deigarria iruditzen zait espainiar nazionalismoaren erantzuna, bat-batekoa eta bortitza izan delako. PPK zuzenean ETArekin multzoan sartu nahi izan du EA, eta oso haizatuak izan diren neurriak iragarri ditu. Baina zertan oinarritu da espainiar nazionalismoa EAren kontrako eraso hori abian ipintzeko? Oro har, independentzia modu “ozenago eta gardenago” batean aldarrikatzea, sinboliko eta erretorikotzat jotzen omen duten EAJrenetik aldentuta.

Azken urteotan espainiar nazionalismoa burutzen ari den eraso ideologikotik, indar abertzale batzuek jaso nahi izan duten mezua da biolentziaren kontra jo behar dela eta ezker abertzalearen kontra ari dela. “Ni horretatik libratuko naiz” pentsatzen omen dute gainerako indar abertzaleek, eta hortik dator noizean behin kezaz aritzea *zilegia* omen den ezker abertzalearen kontrako erasoaz gain, besteen kontra ere jotzen delako: “Independentzia aldarrikatzen dugulako ezin gaituzue ETArekin zaku berberean nahastu” esaten omen dute halakoetan, espainiar nazionalismoarentzat zakua berbera dela jakin gabe, arerio duen independentziarena edo euskal nazionalismoaren proiektuarena, alegia. ■

« Zertan oinarritu du espainiar nazionalismoak EAren kontrako eraso? Oro har, independentzia modu ‘ozenago eta gardenago’an aldarrikatu izanean »

TXANDAN

Igor Estankona

Laguntza



Laguntza ematen duenak laguntza behar izaten du.

Laguntza ematea da maitasunaren alderdi destruktiboena. Nik ikusi zaitut bikoteari laguntza ematen ia-ia libazio baten antzera, eta baietz diozu, eta jaikitzen laguntzen diozu eta gupida erakusten duzu, eta gezurra diotsozu, eta baietz diozu, eskuzabal.

Baietz diozu batasunagatik, gaixotasunagatik. Gauean zure laringea izan ohi da bere besokoa. Baietz diozu, ze azken batean, bizitza luzea da, eta bere sufrimenduak hunkitu egingen zaitu.

kitu ere zutaz. Eskertu eta errespetatu egingen ditu esku horiek gorputza garbitzen diotuzenean, rola onartuz.

Baietz diozu, behin eta berriro baietz, pentsatuz, agian, bizitza luzea dela oraindino, sanmartinetako uda txikia bezala.

Baietz diozu, eta oheratu egingen duzu, eta gupida erakusten duzu, eta gezurra diotsozu, eta loak hartzen zaitu, egun hauek ordezkaturik dituzten egun berriak etorriko direla amestuz, bera betiko gazte izango denean zure bular idorretan. ■